

Pribatutasun Politikaren testua

Pribatutasun politika honen helburua da [adierazi EUSKANPUS FUNDAZIOAREN erakundea](a)(r)en datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazioa ematea eta interesdunek zer eskubide dituzten azaltzea, honako honen arabera: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO), eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (DBEDBLO).

1. Arduradunaren nortasuna eta harremanetarako datuak

Titularra: EUSKAMPUS FUNDAZIOA

IFK/IFZ: G95658688

Telefono-zenbakia:

Erregistro-datuak: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta (F-312 zk.).

Ondoren zerrendatzen diren datu tratamenduen arduraduna da. Harekin harremanetan jartzeko, honako bide hauek erabil daitezke:

- Posta bidez, honako honi zuzenduta: Errektoretza eraikina, Sarriena Auzoko z.g., 48940 PK, Leioa – (Bizkaia)
- Helbide elektroniko honen bidez: lop@euskampus.eu.

2. Datuen tratamendua: xedeen, oinarri juridikoen eta hartzaileen deskribapena

EUSKAMPUS FUNDAZIOAK badu bere ardurapeko Tratamendu Jardueren Erregistro bat, eta bertan zehazten dira tratamenduaren xedea, horiek legitimatzen dituzten oinarri juridikoak eta DBEOaren 30. artikuluan aurreikusitako gainerako elementuak. Jarraian, webgune honen bidez egindako tratamenduak aipatzen dira, bai eta bezeroekin, hornitzaileekin eta negoziazio- edo enpresa-harremanak dituen gainerako eragileekin lotutako beste batzuk ere:

Tratamenduak	Tratamenduaren helburuak Legitimazioa	
Webgunea	Helburuak	Harremanetarako formularioaren bidez jasotzen diren eskabideak kudeatzea eta, hala badagokio, arreta ematea
	Legitimazioa	Interesdunaren baimena
	Helburuak	Ondoriozko kontaktuak izatea
	Legitimazioa	Kontratu betebeharrak betetzea

	Helburuak	Elkarlaneko lan plataformak kudeatzea
	Legitimazioa	Interesdunaren baimena Bi alderdien interes legitimoa

3. Datuak gordetzea

Tratamendu bakoitzean, datuak gorde egingo dira hasitako harremanak iraun bitartean, eta, ondoren, aplikatu beharreko legezko epeetan eta datuak biltzeko helburuak betetzeko behar den denboran, bai eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran ere. Tratamendu bakoitzerako behar diren datuak baino ez dira eskatzen. Gure online formularioetako datuak ez jakinarazteak berekin ekarriko du eskaerei ezin erantzutea.

4. Eskubideak baliatzea

Gure posta helbidera edo helbide elektronikoa honetara idatziz: lopd@euskampus.eu, interesdunak edo datu pertsonalen titularrak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu, araudian aurreikusitako egoera eta baldintzetan:

- Datuak eskuratzeko eskubidea: datuak tratatzen ari diren ala ez jakiteko.
- Zuzentzeko eskubidea: datu okerrak zuzentzeko.
- Ezabatzeko eskubidea: tratamendua bertan behera uzteko, besteak beste, datuak ez badira beharrezkoak jaso ziren helburuetarako.
- Aurka egiteko eskubidea: inguruabar zehatzetan tratatzeari uzteko.
- Tratamendua mugatzeko eskubidea: kasu jakin batzuetan tratamenduaren irismena mugatzeko, baina datuak gordetzea bermatuta.
- Datuen eramangarritasunerako eskubidea: aldeztatik emandako datuak jasotzeko edo hirugarren bati bidaltzeko eskatzeko.
- Aldeztatik emandako baimena edozein unetan errebozkatzeko eskubidea.
- Kontrol agintaritzaren aurrean erreklamazio bat egiteko eskubidea, bere eskubideak baliatzeko.

Bere eskubideak baliatzeko, interesdunak bere nortasuna egiaztatzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko du.

5. Zer segurtasun neurri dauzkagu ezarrita?

EUSKAMPUS FUNDAZIOAK datu pertsonalak isilpean gordetzeko eta datu horiek gordetzeko betebeharra betetzea hitzematen du, eta behar diren neurriak hartuko ditu datu horiek aldatzea, galtzea eta baimenik gabe tratatu edo eskuratzeko eragozteko, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.

EUSKAMPUS FUNDAZIOAK beharrezkoak diren segurtasun neurri teknikoak eta antolamenduzkoak ditu ezarrita dauzkan datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea eta baimenik gabe tratatzea eta/edo eskuratzeko eragozteko, teknologiaren egoera, gordetako datuen izaera eta arriskuak –giza ekintzaren edo ingurune fisiko edo naturalaren ondoriozkoak izan– kontuan hartuta, aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera.

6. Estekak beste webgune batzuetara

Web orri honetan baliteke egotea EUSKAMPUS FUNDAZIOAK kudeatzen edo kontrolatzen ez dituen beste gune batzuekiko hiperestekak. Horregatik, EUSKAMPUS FUNDAZIOAK ez ditu bermatzen, webgune horietako edukien zilegitasuna, fidagarritasuna, erabilgarritasuna, egiazkotasuna eta gaurkotasuna edo pribatutasun praktikak, eta ez du horren erantzukizuna bere gain hartzen. EUSKAMPUS FUNDAZIOAREN ez diren web gune horiei informazio pertsonala eman baino lehen, kontuan izan, mesedez, oso litekeena dela haietan datu babesaren arloko betebeharrak guk bezala ez betetzea.

7. Pribatutasun politika eguneratzea

Datuak babesteko politikaren edukia aldatu ahal izango da, gerta daitezkeen lege aldaketetara egokitzeko, bai eta kontrol agintaritzek emandako irizpide eta jarreretara egokitzeko ere.

Pribatutasun Politika 2021eko ekainaren 16an eguneratu zen azkenekoz.

Harremanetarako formularioaren web testua

Erabiltzeko jarraibideak

Eredu hau erabiliko da harremanetarako web formularioa kontsultak egiteko eta informazioa eskatzeko erabiltzen duten pertsonen beren datu pertsonalen tratamenduaren berri emateko:

Klausulak bi geruza ditu:

- 1. geruza: datuak babesteko oinarrizko informazioa da, eta formulario horren beheko aldean jaso behar da beti.
- 2. geruza: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza, eta EUSKAMPUS FUNDAZIOAREN web orriko pribatutasun politikan egongo da eskuragarri. Pribatutasun politika horretarako esteka bat egongo da onarpen laukian.

1. geruzako testuaren oinaldean nahitaez markatu beharreko laukitxo bat jarriko da (ez da aurrez markatuta egongo), eta pribatutasun-politikarako esteka edukiko du.

Informazio klausula (1. geruza)

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Emandako datu pertsonalak EUSKAMPUS FUNDAZIOAK tratatuko ditu tratamenduaren arduradun gisa, kontsultak eta informazio eskaerak kudeatzeko. Zure datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatu ditzakezu, baita beste eskubide batzuk baliatu ere lop@euskampus.eu helbidean, pribatutasun politikan datuen babesari buruzko informazio gehigarriarekin batera azaltzen den bezala.

Pribatutasun politika, irakurri dut eta onartu egiten dut.